

HARAKINAK KONTATU ZUEN ISTORIOA

Mila gau eta gau bat gehiagoko ipuinak bildumatik hartua da istorio hau. Bilduma miresgarri horretan sarri egin ohi den bezala, ipuin luzeak, laburrak eta pasadizuak harrigarriro lotuak agertzen dira, Xerezadaren mila eta bat gauetako fantasiazko edukin amaigabez hornituz. Hona ipuin honen zertzeladak edo aurrekariak: erregek beharturik, jauregi bateko bufoiak emaztea hartu behar izan du. Ezkondu eta urtebetera, berriz, emazteak dagoeneko lau maitale ditu, lanbide desberdinetakoak: gozogilea, ortularia, harakina eta klarinete-jolea. Egun batean, bufoiak ustekabeen laurak aurkitu ditu etxean emazteari lizunkeriako bisita egiten. Zenbait gorabeheraren ostean, lortu du lau gizonak erregeren aurrera eramatea, honek zigorra jartzeko. Baina erregeri barre zantzo ugari aterako dioten istorio bana kontatuz, honen larderiazko zigorretik libratzea lortuko dute.

Hona, bada...

Harakinak kontatu zuen istorioa

Behinola, Alkairon gizon bat bizi omen zen, ezkondua bera; bere emaztea emakume txit ezaguna zen eta auzoan ondo ikusia zegoen, hain zen adeitsua, maratza, esanekoa, izaera atseginekkoa eta Jaunaren beldurrekoa.

Eta behin emazte ustez zintzo hark etxean ahate mardul-mardul ondo gizendutako bi zituen, gantz gozo-gozoz hornituak; baina bazuen, halaber, bere gogoaren eta bihotzaren txokorik gordeenean maitale bipil bat, emakume gaztea zeharo liluraturik zeukana. Maitale hori, ba, etorri zitzaion isilgordeka, ohi bezala, bisita egitera. Gizona, ahate pare bikaina ikusita, bat-batean gosetzen hasi zen eta emakumeari honela esan zion: «Ene laztana! Ahate horiek erarik goxoenean bete eta prestatu egin beharko zenituzke, biok biotara jataldi ederra egin dezagun; izan ere, ahatekia jateko irrikitan nago gaur.» Emakumeak erantzun zion: «Hori erraza da oso, maitea; gainera, atsegin dut zure irrikiak betetzea. Eta, alajaina, ahate horiei zintzurra moztu eta bete egingo ditut; eta biak ala biak emango dizkizut, etxera eramateko eta zeure gozamenerako eta bizipozarako izan daitezten. Horrela, nire senar muturluze adur txarrekoak ez ditu ahateok dastatuko, ezta usainduko ere!» Gizonak honela galdetu zion: «Eta zelan burutuko duzu zeure asmoa?» Emakumeak, berriz: «Malmuzkeriaren bat erabiliko dut hari eskarmentua emateko eta ahateak oso-osorik zeuretzat izango dira, niretzat ez baita inor zu beste maite dudarik; zeu zara nire begiek dakusaten eta behar duten argi guzti-guztia. Gainera, era horretara senarrak —sudurluze petral horrek!— ez du jakin ere egingo zelako zaporea edo usaina duten ahateok.» Ondoren, maitaleek elkar besarkatu zuten eta, beste barik, gizon gazteak etxerako bidea hartu zuen. Eta bego, ba, horretan istorioa berari dagokionean.

Emakume gazteari zegokionez, berriz, honela esan zion senarrari, eguzkia gorde ondoren bere eginbeharretatik itzuli zenean: «Izan ere, gizona, nola nahi duzu jendeak zu gizontzat bete-betean hartzea, erakusten ez baduzu, hain zuzen ere, gizabidearen ezaugarri behinena, alegia: eskuzabaltasuna? Ezen sekula ez duzu inor gonbidatu etxera, ezta behin ere niri esan: "Aizu, emakumea, gaur arrotza ekarri dut etxera" Eta zeure buruari esaten ere ez ote diozu egundo honelakorik entzun: "Honenbeste zekenkeriaz betiko biziko banaiz, abegikortasuna eta gizalegea zer diren ez dakidan doilor hutsa naizela esango du noizbait jendeak"? Senarrak aurreko hitzak une batez hausnartu zituen; baina laster eman zion erantzuna: «Ene emaztea, huts hori erraz da konpontzen! Bihar bertan, bai horixe, bildoskia eta arroza erosiko dizkizut bazkaltzeko edo afaltzeko zeure gustuko zeozer presta dezazun eta, horretara, neure adiskide haundietako batzuk gonbidatuko ditut bazkaritara edo afaritara.» Eta emazteak berriro ekin zion: «Ez, alajaina, gizona! Okela hori baino gurago nuke haragi xehatua erosiko bazenit etxean ditugun ahate horientzat —zuk zintzurra moztu ondoren— nik betegarria prestatzeko

eta labean erre ditzadan; ezen ez dago gauza goxoagorik labean erretako ahate betea baino! Arrotzak etxean adeitsu hartzeko eta atsegin emateko ere egokiagorik ez ahateak baino.» Senarraren ateraldia ez zen berandu jalgi: «Nire buru-begiengatik, hala bedi!»

Biharamunean, eguna urratzean, senarrak ahate mardul biei lepoa moztu zien eta handik lasterrera erosketak egitera irten zen: libra bi xeheki, libra bi arroz, ontza bat espezia eta jakiak ontzeko diren beste belar eta gozagarri batzuk hartu zituen. Etxera etorri zenean, emazteari honela esan zion: «Ahal dela, eguerdirako prest eduki itzazu ahateak, ordurako hemen izango naiz-eta gonbidatuekin.» Eta joan zen.

Emakumea atoan jaiki zen, ahateak lumatu, garbitu eta betegarri zoragarria prestatzeari ekin: haragi xehatua, arroza, pistatxak, almendrak, mahaspasak eta espezia hautatuak erabili zituen horretarako. Nahastura horrekin bete-bete egin ahateak eta labean sartu zituen, egoste puntu doi-doia emanez. Gero bere mirabea, neskatxa beltz bat, bidali zuen gizon kutunaren bila. Hau lasterrera etorri zen; elkar besarkatu zuten eta bata besteari palaguz eta laztanez atsegin betea emandakoan, emakumeak eman zizkion ahate zoragarri haiek, hain maitekiro beteak eta prestatuak. Gizonak hartu zituen eta bideari lotu zitzaion. Eta hauxe da, izan ere, istorio honetan berarekiko guztia.

Senarrari dagokionez, berriz, hau puntual-puntuala izan zen. Eguerdian heldu zen etxera, adiskide bat lagun zuela. Atea jo zuen. Jaiki zen emaztea atea irekitzera joateko, sartzeko esan zien eta adeitasunez hartu zituen. Gero, senarra bereiz harturik, hau esan zion: «Ahate bi hil eta prestatu ditugu eta lagun bat besterik ez duzu ekarri? Beste lau gonbidatu ere etor litezke oraindik nire sukalde-lanari ohorea eta estimua egiteko! Tira, irten zaitez eta bila itzazu beste bi edo hiru lagun ahateak jateko.» Eta gizona apal-apal irten zen emaztearen esana betetzera.

Orduan emaztea gonbidatuarengana joan zen eta larritasun aurpegikera jarriz eta aztoramenduak eraginda bezala, erdi totelka esan zion: «Oi, zure koitadua! Erremedio barik galduta zaude! Alah-rengatik, ez ahal duzu edukiko emazte edo seme-alabarik, behintzat, ezen itzuriezinezko heriotzea datorkizu laster!»

Hitz horiek entzutean, arrotzak sentitu zuen izuak goitik behera hartzen zuela eta bihotz barru-barruraino ikara sartzen zitzaiola. Eta galdetu zion: «Zer gertatzen ote da, emakume zintzo hori? Zein ezbehar izugarri gertatu behar du etxe honetan?» Eta emakumeak erantzun zion: «Alah-gatik, ezin gorde dut sekretua gehiago! Hara: jakizu senarra kexuz eta errezeloz beterik dabilela, nik berarekin dudak jokabideaz goganbeharturik. Zu hona ekarri bazaitu, barrabilak kentzeko baino ez da, bizi guztirako eunuko irendua bihur zaitez. Eta horrela zaudenean, nahiz hilda nahiz bizirik, guztien errukarria izango zara!» Eta erantsi zuen: «Hain zuzen ere, senarra beste bi adiskideren bila joan da zu irentzen lagun diezaioten.» Emakume gaztearen jakinarazpen hori entzun zuenean, gonbidatua une hartan bertan jaiki eta kalera arrapataka irten zen, arineketa biziari emanez.

Eta handik pixka batera, aldi berean ia, senarra sartu zen bi adiskiderekin. Emakumeak oihuka hartu zuen, zioela: «Zertarako une txarrak? Horretarako hainbeste lan eta ardura? Eneeee, ahateak! Gure ahateak!» Senarrak galdetu zion: «Alah-ren izenean! Zer gertatu da? Zer dela eta hainbeste arrangura, emakume?» Emazteak, berriz: «Horretarako hainbeste prestakuntza egin! Zergatik hartu ote nuen hainbeste lan eta ardura? Hau zoritxarra, hau atsekabea! Ai, gure ahateak, gure ahateak!» Senarrak, osterat: «Baina... zer gertatu ote da ahateekin? Alah-ren izenean, isil zaitez behingoan; utzi erosta jotzeari eta esadazu atoa zer jazo zaien zorioneko ahateei! Ezpabere hilgo zaitut, arraioa, hil egingo zaitut!» Emazteak, erantzunez: «Ez zaitez txepela izan, ez zaitez hain txepela izan! Lekutan daude ahateak, bai horixe! Zure lagunak, arrotzak eraman ditu, merke-merke irtengo zitzaizkiola iritzita eraman egin ditu lehentxoago, leihotik hanka eginda! Ergel hutsak izan gara!»

Emaztearen berba horiek entzutearekin batera, senarra arinak arin kalera irten eta hara non ikusi zuen gonbidatua lasterka bizian, tunikari hortzartean heltzen ziola. Eta deadar egin zion: «Alah-ren izenean, itzuli, arren, itzul zaitez eta ez dizut dena kenduko! Itzul zaitez eta, Alah lekuko, ez dizut erdia besterik kenduko. *Bat bakarrik* kenduko dizut, *bat bakarrik!*» Horrekin esan nahi zuen, noski, ahate bat besterik ez ziola kenduko, bestea hark eramaten utziko ziola; hala ere, tankera horretan deadarka entzun zionean, iheslariak, pentsaturik barrabil bat —biak barik, bat— bakarrik kenduko ziola, zoliago ekin zion lasterrari, zioela: «Barrabil bat kendu niri? *Bat bakarrik?* Ño, ez da gauza makala! Harrapatu beharko nauzu, bai, nire barrabiletako bat bakarrik erauzi nahi badidazu!»

1. AZPIMARRATURIK DAUDEN HITZAK AZTERTU ETA EMAN BAKOITZAREN DEFINIZIOA EDO SINONIMOREN BAT
2. EMAIOZU JARRAIPENA ISTORIOARI ERA HONETAN: SENARRAK ARROTZA HARRAPATU DU ETA BIEN ARTEKO ELKARRIZKETA ESTILO ZUZENEAN EMANEZ (ANTZERKIKO MOLDEAN) ARGITU DADILA SORTU DEN NAHASPILA EDO GAIZKI-ULERTUA